EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del GOBIERNO VASCO

# LEHEN HEZKUNTZAKO 2. MAILA

# 5. UNITATE DIDAKTIKOA:

# BORONDATEA. AUKERATU, BERDINTASUNEZ PLANAK EGIN

# GAI ZERRENDA



**HEZKIDETZA**

- Irakaslearen gida

**MATERIALA**

- “Buru eta Sorgin” ipuina
- “Zerrenda” jolasa
- Ikasleen koadernoa
- Familien koadernoa

tratu txarrak NAHIKO! 1 - 2 berdintasuna
maltrato igualdad

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna Organismo Autónomo
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# HEZKIDETZA, BERDINTASUNERAKO HEZIKETA

**Ikasle oro, neska nahiz mutil, generoko rolik gabe: bizitzaren arlo guztietan pertsona osoak eta autonomoak.**

**Giza Eskubideetan oinarritutako harremanak.**



## BERDINTASUNA:

- Ikasle guztiek, neskek zein mutilek, norbere autonomia, pertsonen arteko tratu onak eta erabateko hiritartasuna lortzeko heziketa eduki dezaten.
- Errespetuz eta indarkeriarik gabe hazi, sentitu, ekin, ikasi, erabaki eta elkarbizi daitezen.

→ Nahiz arlo pribatuan nahiz publikoan Giza Eskubideak errespetatuz bizi eta elkarbizi daitezen.

→ Arazoak eta auziak biolentzia-eza erabiliz konpondu ditzaten.

→ Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten.

# LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA

## NAHIKO! 1-2 Logoa

**Desberdintasunaren semaforo gorriak sexuaren arabera.**

**Berdintasunaren semaforo berdeak denontzat.**

**HELBURUA: semaforo berde guztiak guztiontzat, semaforo gorririk gabe.**



## NIK AHAL DUT:

- Nire gorputza ezagutu, maitatu eta garatu.
- Emozio berriak eta enpatia sentitu. Emozio guztiak sentitu, kudeatu eta partekatu.
- Lehen egiten ez nituen gauza asko egin. Jakin-mina izan. Esperimentatu. Ikasi.
- Etxeko girotik atera. Harreman berriak egin. Helduen ereduak imitatu ala eredua berritu.
- Arreta, umorea, memoria, arrazonamendua eta abar garatu. Aukeratu, erabakiak hartu.
- Elkarbizitzako arauak eta balioak ikasi eta erabili. Lagunartekoa eta gizartea eraiki.



# LEHEN HEZKUNTZAKO
# 2. MAILA

| UNITATEAK | JOLASAK | IPUINAK |
|---|---|---|
| 4. Mugak gainditu, ikastea | Bizitza biderkatzeko taula | Trebe eta Tximista |
| 5. Borondatea. Aukeratu, berdintasunez planak egitea | Zerrenda | Buru eta Sorgin |
| 6. Beste pertsonak, elkarbizitza | Gakoa | Gau bat aterpetxean |

## 5.UD, AUKERATU:

- Etorkizuna sexu-mugarik gabe aukeratu.
- Gaitasun pertsonalen garapena, generoko mugarik gabe.
- Aukera berdintasuna denontzat!
- "NIK AUKERATZEN DUT! NIK AHAL DUT!".



# IRAKASLEEN FORMAKUNTZA

## IRAKASLEAREN GIDA:

1. Berdintasunez aukeratu: nik aukera dezaket; zuk, neska, aukera dezakezu; zuk, mutil, aukera dezakezu… ala ez?
2. Helburua. Aukera berdintasuna: guk, neskek eta mutilek, aukeratzen dugu; haiek, neskek eta mutilek, nahi eta aukeratzen dute.
3. Materialak eta ekintzak.
4. "Buru eta Sorgin" ipuina.
5. "Zerrenda" jolasa.

BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5 UNITATE DIDAKTIKOA

IRAKASLEAREN GIDA 13

### 1 BORONDATEA: NIK AUKERA DEZAKET, ZUK, NESKA, AUKERA DEZAKEZU, ZUK, MUTILA, AUKERA DEZAKEZU… ALA EZ?

Gure ikasle neskak eta ikasle mutilak borondatea gero eta gehiago erabiltzeko, gero eta erabaki gehiago hartzeko eta nahi dutena aukeratzeko prozesuan daude. Gakoa berriz, ikasle neskek eta ikasle mutilek bai bere bizitzaren arlo pertsonalean, bai profesionalean eta bai sozialean ere egin nahi dutena erabakitzeko eta gauzatzeko aukera eta baldintza berberak dituzten jakitean datza. Hots, nesken "nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket/aukeratu nahi dut" hori mutilen "nahi dut/aukeratzen dut/aukera dezaket/aukeratu nahi dut" horren parekoa den ala ezberdinak diren eta, horrela balitz, zergatik diren ezberdinak. Hau da, nesken "nahi dut/aukeratzen dut" horrek mutilenak bezain aukera-sorta duen, esparru beretan eta gizarteko onarpen berarekin ematen den.

Denboraren erabilerari buruzko inkestek, bizimoduek eta ohiturek (kirol-praktika, kontsumoa, erlazioak, arrisku jokabideak…) neskak eta mutilak modu ezberdinean bizi direla adierazten dute. Ikasketen aukerari eta enpleguari buruzko datuek, nahiz eta azken urtetan aldatu, oraindik ere arlo maskulinizatuak (teknikoak, teknologikoak) eta arlo feminizatuak (osasunagoak, zientzia sozialak) daudela adierazten dute.

Datu hauek nesken eta mutilen desioak, gustuak eta borondatea nola eraikitzen diren, aukeratzeko askatasun erreala, neskek eta mutilek normaltzat jotzen dutena eta normalki neska-mutilei helduok eskaintzen diegun aukera-sortari buruz guk pentsatu eta hausnartzeko beharra azaltzen dute.



# BEHAKETA: NORK AUKERATZEN DU ZER?

## "AUKERATZEN DUT": NESKEK ETA MUTILEK BERDIN?



- Aukera eta baldintza berberak? Arlo eta esparru beretan? Bizitzaren arlo guztietan?
- Gizartearen onarpen eta balio berbera? Semaforo gorri berberak? Semaforo berde berberak?

### GURE GIZARTEAN

→ Orokorrean, neskek eta mutilek ez dituzte aukera berdinak egiten.

→ Orokorrean, neska eta mutilentzat aukera "normal eta natural" ezberdinak bereizten ditugu.

→ Nesken aukerak ≠ Mutilen aukerak.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# MITOA: GUSTUKUA AUKERATZEN DUTE



**“NESKEI KOLORE ARROSA GUSTATZEN ZAIE ETA MUTILEI EZ”**

**“MUTILEK GAUZA BATZUK DITUZTE GOGOKO ETA NESKEK BESTE BATZUK ”**

**“GUSTUKOA DUTELAKO AUKERATZEN DUTE HORI”**

## ASKATASUNEZ AUKERATZEN DUTE?

- → **Gure gizartean, neskek hau aukeratzen dute gehienbat: panpinekin jolastea, etxeko lanetan laguntzea, zainketarekin erlazionatutako lanbideak, esaterako ile-apainketa, erizaintza, sendagintza, hezkuntza…**
- → **Gure gizartean, mutilek hau aukeratzen dute gehienbat: lokomoziozko jostailuekin jolastea, gauzak eraikitzea, ikasketa teknikoak eta ospe soziala gehiago dituzten lanbideak: injeniaritzak, enpresa-ikasketak, kirolak…**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# HELBURUA: GUSTU ETA AUKERAKETA PERTSONALAK

## IKASLE NESKEK ETA IKASLE MUTILEK SEXU-MUGARIK GABE AUKERATU

**- Aukera berberak. Aukera arlo berberak. Aukera mota berberak.**

**→ Sexu-mugarik gabe aukeratzea zer den jakitea → bizitzaren arlo guztietan.**

**→ Pertsona bakoitzaren gaitasun eta aukeren arabera ikastea → ez neskaren ereduaren arabera edo mutilaren ereduaren arabera.**

**→ Aukeratzen ikasi. Berdintasunez aukeratu.**



# HELBURUA: SEMAFORO BERDEAK GUZTIONTZAT

## IDENTIFIKATU ETA AZTERTU GURE GIZARTEAN:




- Mutilek aukeratu "ezin dituzten/ohi ez dituzten" aukerak identifikatu.
- Neskek aukeratu "ezin dituzten/ohi ez dituzten" aukerak identifikatu.
- "Soilik" mutilek aukeratu ahal edo ohi dituzten aukerak identifikatu.
- "Soilik" neskek aukeratu ahal edo ohi dituzten aukerak identifikatu.




**Berdintasunez aukeratzen ikasi, neska eta mutil bakoitzaren aukerak errespetatu eta onartu sexua kontuan hartu gabe:**

→ SEMAFORO GORRIRIK EZ

→ SEMAFORO BERDE GUZTIAK GUZTIONTZAT

# HIRUHILEKOAREN ANTOLAKETA



Unitate didaktikoaren materiala hiruhilekoan zehar erabili

## PAUSOAK:

→ Asteroko saioetan ikasleekin:

- "Buru eta Sorgin" ipuina landu.
- "Zerrenda" jolasa ezagutu, landu eta jolastu.
- Ikasleen koadernoa bete, ipuina eta jolasa barneratzeko. Zatika egiten joan daiteke.

→ Eskolan landu ondoren:

- Familien koadernoa etxera bidali etxekoekin landu, hausnartu eta partekatzeko. Zatika egiten joan daiteke.
- Ez da "etxeko-lana", ez da eskolan "zuzenduko". Erabileraren eta etxean lortutako giroaren jarraipena egingo da.

# "BERDINLAND"





**BAZEN BEHIN…**

- Emakume eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik eredu positibo eta anitzak.

- Gure gizartean ohiko egoera eta pertsonai estereotipatuen alternatiba berdinzaleak.

- Ikasleen adineko neska-mutil lagun taldea eta beraien eguneroko bizipenak.

- Ipuin bakoitzean kanta bat eta taldeko neska eta mutil baten protagonismoa eta lidergoa.

# "BURU ETA SORGIN" IPUINA



## GUSTU ETA AUKERAKETA EZBERDINAK:

- BURU, neska azkarra, informatikan eta matematikan nabarmentzen dena.
- SORGIN, jakinmin handiko mutila, plan eta ekimen guztietan parte hartzen duena.

## ETORKIZUNERA BIDAIA BAKOITZAREN ETORKIZUNA AUKERATZEKO:

- Etorkizuna ezagutu, nahi dutena aukeratu eta prestatzen hasteko.
- Guztiontzat, bizitzaren esparru guztietan, etorkizuna eta aukera berdintasuna: zaintzarako, enplegurako eta aisialdirako.
- Nahi dutena lortzeko egin beharreko bidea eta prestaketa.



# IPUINA LANDU



Egunerokotasunarekin lotu.
Hausnartu, eztabaidatu.
Ipuina jarraitu, aldatu…

## JARDUERAK

- Ipuina ikusi eta entzun (bideo-ipuina) edota irudiak eta testuak ikusi eta irakurri (pdf artxiboa).
- Zer gustatu, zer ez, zerk harritu…? Zergatik?
- Gure gelan, gure herrian, horrelako neskak daude? Zergatik? Nolakoak dira? Eta mutilak? Zergatik? Nolakoak dira?
- Zergatik jokatzen du horrela pertsonaiak? Neska delako? Mutila delako? Bere ogibidearengatik? Bere nortasunarengatik?
- Zer nahiko genuke ikasi, entrenatu, trebatu? Zergatik? Ahal dugu egin? Zergatik?

# ONLINE JOLASAK




## JOLASTU, BIZIARAZI, AZTERTU, HAUSNARTU

- Lan-talderako materialak.
- Egoerak, sentsazioak, bizipenak, sentipenak, harremanak… biziarazi eta gogoratu.
- Galdetu, aztertu, hausnartu, ulertu, eztabaidatu, adostu, iradoki, aldatu…
- Ondorioak, alternatibak, aldaketak…

**JOLAS BAKOITZAK HIRU ATAL**

- Hasierako tutoriala (azalpena)
- JOLASA
- Bukaerako laburpena (hausnarketa)

# HASIERAKO TUTORIALA




## ERABILERA

- Jolasa ezagutzeko.
- Non dago tutoriala?
  - Lehenengo zikloko jolasetan (LH1 eta LH2) irakasleari alta ematerakoan azaltzen da.
  - LH3tik aurrera berriz, ikasle bezala alta ematerakoan azaltzen da.
- Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.
- Tutoriala saltatzeko aukera dago botoi gorriari emanez. Adibidez, jolastu den lehen partidetan jadanik tutoriala egin bada eta jolasa jadanik ondo ezagutzen denean, ez da beharrezkoa berriro egitea.

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# BUKAERAKO LABURPENA




## ERABILERA

- **Partidaren emaitzak aztertzeko eta kontzeptuak finkatzeko.**
- **Non dago laburpena?**
- **Jokalari bakoitzari azaltzen zaio partida amaitzerakoan.**
- **Lehen partidetan talde osoarekin erabil daiteke eta, gero, taldeka edo banaka.**
- **Laburpeneko galdera batzuk jolastutako partidaren araberakoak dira.**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# ONLINE JOLASEKIN JARDUERAK




## 1.- JOLASTU AURRETIK, JOLASA EZAGUTU:

- Kartak eta fitxak ezagutu, marrazkien eta hitzen esanahia argitu…
- Irizpide anitzak erabiliz fitxak antolatu eta sailkatu. Pertsonaien ezaugarri komunak edota ezberdinak identifikatu.
- Kartak kopiatu eta hormairudiak egin elkarren artean erlazionatuz, osatzen dituzten testu edo irudiak gehituz. Egungo albisteekin edota gertaerekin erlazionatu.
- Nork bere burua edota beste pertsonak errespetuz ezagutu eta deskribatzeko hitzen zerrenda osatu. Erabiltzen al ditugu hitz batzuk neskentzat eta beste batzuk mutilentzat? Zergatik?
- Hitz berrien hiztegi txikia egin. Hiztegia irudi, adibide, egoera edo esaldiekin lotu…
- Karta edota fitxa berriak sortu.

## 2.- JOLASTU ONDOREN, HAUSNARTU:

- Egindakoa aztertu, zalantzak argitu…
- Jolas amaierako online laburpena bete.
- Ezkerreko laukiko ariketak egin.
- Ikasleen koadernoko ariketak egin.

# “ZERRENDA” JOLASA

## 30 HELBURU-FITXA

**30 HELBURU: pertsonek bizitzan eduki ditzaketen helburuak, hau da, bizitzan lortu nahi dezaketena.**


Nire familia zaindu


Kirolari profesionala izan


Baratzedun etxean bizi


Musika talde batean jo


Munduan gertatzen dena ezagutu


Zoriontsu izan

Familiarentzako denbora

Sormena, irudimena

Landare laborantza

Dedikazioa, konstantzia

## 30 PLAN EDO BITARTEKO FITXA

**30 PLAN EDO BITARTEKO: helburuak lorteko behar diren gaitasun, ezaguera, ikasketa… jasotzen dituzte.**

# BIZITZAREN ARLO GUZTIETAN
















## HELBURUAK BIZITZAREN ARLO GUZTIETAN:

- **Garapen pertsonalean.**
- **Lanean, enpleguan, arlo profesionalean.**
- **Gizartean, lagun artean, aisialdian.**

**PLAN EDO BITARTEKOAK BIZITZAREN ARLO GUZTIETAN GARATU ETA APLIKATU**

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO

# HELBURUAK LORTZEKO PLAN EDO BITARTEKO ZERRENDAK



**Pertsona ona izan**

- Zaintza
- Eskuzabaltasuna
- Errespetua, adeitasuna



**Teknologia berriekin lan egin**

- Jakin-nahia, gaitasun kritikoa
- Ikerketa
- Arreta, pazientzia
- Neure buruarengan ziurtasuna



**Musika talde batean jo**

- Autonomia pertsonala
- Anbizioa
- Lagunentzako denbora
- Dedikazioa, konstantzia

# JOLAS ARAUAK 1

**JOLASA HELBURAK LORTZEKO PLANEN ZERRENDAK EGITEAN DATZA:**

**Helburu bakoitzaren azpian 3 plan edo bitarteko egoki kokatu.**




* Online jolasaren hasierako tutorialean zehatz-mehatz azalduta

NAHIKO! 1-2
tratu txarrak / maltrato
berdintasuna / igualdad
EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

# JOLAS ARAUAK 2




**Adibidea**



# JOLAS ARAUAK 3







## ZERRENDA ASKO

**Helburu adina zerrenda.**

## TARTEKO HELBURUAK

**Helburu bat beste helburu baten plana edo bitartekoa izan daiteke, hau da helburu orokor baten tarteko helburua.**

# IKASLEEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak


BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:

IKASLEAREN KOADERNOA 5

1 NESKAK ETA MUTILA, BERDINAK?

1 Hona hemen Buruk eta Sorginek etorkizunerako aukeratu ditzaketen hainbat helburu. Gure gizartean berriz, orokorrean, mutilek bakarrik horietako batzuk aukeratzen dituzte eta beste batzuk ez. Eta neskek berdin. Lotu Bururekin hemen gehienbat neskek aukeratzen dituztenak eta Sorginekin gehienbat mutilek aukeratzen dituztenak.

▸ Helburu ezberdinak dira? Zergatik? Beste era batera izan daiteke? Nola?


BORONDATEA – AUKERATU 5. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

2 Esaldi hauek nesken eta mutilen aukeratzeko eskubidearekin lotura dute. Batzuk berdintasunaren aldekoak dira (semaforo berdeak). Beste batzuk berdintasunaren kontrakoak (semaforo gorriak). Inguratu esaldi bakoitzari dagokion semaforoa, gorria ala berdea.

"Neska eta mutil bakoitzak bere desioen arabera egin ditzake bere aukeraketak".

"Mutilek panpinekin jolastea erabaki dezakete, horrela nahi izanez gero".

"Neskek edozein kirola egitea erabaki dezakete, horrela nahi izanez gero".

"Mutilek ezin dute arrosa koloreko arropa jantzea erabaki nahiz eta gustukoa izan".

"Neska guztiek eta mutil guztiek dute hartu dituzten erabakiak aldatzeko eskubidea".

"Neska guztiek gauza bera desio dute. Mutil guztiek gauza bera nahi dute".


BORONDATEA – AUKERATU 5. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

3 Hemen, Buru eta Sorginek bezala, edozein neskak eta edozein mutilek bere bizitzan aukeratu ditzaken gauzak daude. Hitzak bilatu eta borobildu. Ezkerretik eskuinera eta goitik behera idatzita daude:

PROIEKTUAK, PLANAK, ALDAKETAK, JOLASAK, LANAK, HARREMANAK, ZALETASUNAK, LAGUNAK.

| | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | M | A | J | O | L | A | S | A | K | O | O | L | I | P |
| A | I | T | O | R | A | L | D | A | K | E | T | A | K | L |
| P | R | O | I | E | K | T | U | A | K | L | U | N | E | A |
| O | G | I | A | S | A | U | L | A | G | U | N | A | K | N |
| A | B | Z | A | L | E | T | A | S | U | N | A | K | E | A |
| H | A | R | I | T | H | A | R | R | E | M | A | N | A | K |

4 Idatz itzazu zure bizitzan orain arte zuk nahi izan duzulako aukeratu eta aldatu dituzun gauzak: jostailuak, janari mota, lagunak, arropa, ipuinak... adibidean bezala.

| | LEHEN | ORAIN | |
|---|---|---|---|
| Lehengo argazkia itsatsi | Biberoia | Makarroiak | Oraingo argazkia itsatsi |


BORONDATEA – AUKERATU 5. UNITATE DIDAKTIKOA IKASLEAREN KOADERNOA

2 NIK AHAL DUT, NIK EGIN DEZAKET

1 Edozein neskak eta edozein mutilek aukeratu ditzaketen hiru helburu daude hemen. Ondoan zazpi plan. Aukeratu eta idatzi zure ustez helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren planen zenbakiak.

Aurkikuntza zientifiko handi bat egin

Zoriontsu izan

Lagunekin etxebizitza berean bizi

1. neure buruarengan ziurtasuna
2. hizkuntzak
3. etxeko lanak
4. familiarentzako denbora
5. enplegua
6. unibertsitate ikasketak
7. lagunak

2 Idatzi zure bizitzan lortu nahi duzun helburu bat eta, azpiko laukietan, helburu hori lortzeko zure plangintza edo planen zerrenda.

NIRE HELBURUA

NIRE HELBURUA LORTZEKO EGINGO DITUDAN PLANAK

## HITZ EGIN, HAUSNARTU, BARNERATU, LABURTU:

- Hitzak eta marrazkiak markatu ("X" idatzi...).
- Hitzak marrazkiekin lotu (zenbaki bera idatzi).
- Kantaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.

**PDF betegarriak**

# FAMILIEN KOADERNOA

## Landutako ipuin eta jolasei buruzko ariketak


BORONDATEA, BERDINTASUNEZ AUKERATU

5 UNITATE DIDAKTIKOA

IZENA:

FAMILIAREN KOADERNOA 5

1 Bete hutsuneak esaldi hauek erabiliz.

egin dezakegu | zuk aukeratu | geroa pentsatu | denbora banatu

Zure etorkizuna

gogoz eta ahaleginez

ikasi, jolas, dantza

neskek eta mutilek

2 Erakutsi etxekoei Buru eta Sorginen kanta.




3 Zenbakitu marrazkiak Buru eta Sorginen ipuinaren ordenaren arabera.



4 Irudiak jarraituz, kontatu etxekoei Buru eta Sorginen ipuina.




5 Bete beheko laukiak zure senideek etorkizunerako dituzten proiektuekin, Sorgin eta Bururen adibideak jarraituz. Alderik al dago gizonen eta emakumeen artean? Zergatik?

NIRE FAMILIAKIDEEN ETORKIZUNERAKO PROIEKTUAK

| GIZONAK | HELBURUAK | PLANAK |
|---|---|---|
| SORGIN | Seme-alabak izatea eta zaintzea | Familiarentzako denbora |
| | | |
| | | |
| | | |

| EMAKUMEAK | HELBURUAK | PLANAK |
|---|---|---|
| BURU | Ordenagailuekin lan egin | Matematika eta Informatika ikasi |
| | | |
| | | |
| | | |




6 Edozein neskak eta edozein mutilek lau helburu hauek aukeratu ditzakete bere etorkizunerako. Zuk ere bai. Osatu, zure familiaren laguntzaz, helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren planen zerrendak.



Gogoratu

- Genero estereotipoek neska eta mutilen erabakiak modu ezberdinean baldintzatzen dituzte.
- Aukeratzen eta erabakiak hartzen, aukeratuz eta erabakiz ikasten da.
- Pertsona orok du bere bizitzarako erabakiak aldatzeko eskubidea: lana, harremanak, zaletasunak, adiskideak...
- Berdintasunez aukeratzea neska eta mutil bakoitzaren borondate librea errespetatzea eta ahalbideratzea da, sexuaren araberako semaforo gorririk gabe.

**PDF betegarriak**

# HITZ EGIN, HAUSNARTU, ADOSTU:

- Testuaren esaldien hutsuneetan hitzak idatzi.
- Ipuinaren marrazkiak zenbakitu. Ipuina kontatu. Kanta erakutsi.
- Hitzak eta marrazkiak markatu (“X” idatzi, zenbaki bera jarri...).

# FAMILIEN KOADERNOAREN ERABILERA







## PAUSOAK:

1. Familiei Nahiko! aurkezteko bileran koadernoak eta beren erabilera azaldu.
2. Eskolan landu ondoren, familiei koadernoak bidali: USBan, e-mailez, eskolako web-ean ala plataforman zintzilikatu, inprimatuta banatu...
3. Koadernoa erabili etxean elkarrekin hitz egin, partekatu eta hausnartzeko.

## GARRANTZITSUA: TOPAGUNEA DA ETA EZ "EGINBEHARRA"

→ Eskolako lanetaz hitz egiteko eta hausnartzeko aukera.
→ Elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko aukera.
→ Esperientziak, sentimenduak, balioak, erabakiak... BIZITZA partekatzeko aukera.

→ Ez dira erantzun bakarra eta egiteko modu bakarra duten ariketak.
→ Ez da beharrezkoa dena idaztea, dena erantzutea eskolara bidaltzeko.
→ Helburua, familian erabiltzea da, eskolaren laguntza eta jarraipenarekin.

# ONLINE MATERIALA ERABILTZEKO INFORMAZIO GEHIAGO

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

## "ONLINE JARRAIBIDEAK" pdf-a

- Irakasleak materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Ikasleek materiala eta jolasak ezagutzeko pausoak.
- Jolasak erabiltzeko pausoak.
- Hausnarketa: jolasaren laburpena eta koadernoak nola erabili.
- Online jolasteko ohar teknikoak.
- Irakaslea eta ikasleak online jolasetan alta emateko pausoak.
- Nabigatzailean leiho independienteak nola sortu.



NAHIKO

EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA

Organismo Autónomo del

GOBIERNO VASCO